

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ERRIBERAGOITIKO UDALA

#### Udalaren biztanle erroldan ofizioz baja ematea

Erriberagoitiko Udalak jakin duenez, Juan Salvador Moya Garciaren eta de José Luis Hernández Paredesen erroldako helbidea eta ohiko etxebizitza ez datoz bat. Horregatik, apirilaren 14ko 63 Ebazpenaren bidez erabaki zuen 5/2020 espedientea ofizioz abiaraztea, pertsona horiei udalaren biztanle erroldan baja emateko, eta erabaki hau interesdunei jakinaraztea, espedientean entzunaldia emanez, aukera izan dezaten egoki jotzen dituzten alegazioak aurkezteko hamabost eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Pobes, 2020ko uztailaren 15a

*Alkate-lehendakaria*

**JESÚS BERGANZA GONZÁLEZ**